

ttipi-ttapa

1990eko Ekainak 7

39. zenbakia

dohain banatzen da

Eskualdeko
institutoa
Lekarotzen?





TRAKTORE ARTIKULATUAK ETA TRINKOAK
20 HPtik 80HP BITARTEKOAK



NAFARROA OSORAKO BANATZAILEAK
GUILLERMO TXOPERENA eta LUIS GOÑI GARISOAIN
IGANTZI - Tfnoa (948) 63 79 95

AMAIUR

sukalde eta bainu altzariak



Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 59 44 00
DONEZTEBE

NON-ZER

4. Beharrezko telefonoak.
5. Agenda.
6. Irakurleak mintzo.
7. Hontaz eta hartaz.
- 9/21. Herriz-herri; Bortzirriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Leitza, Sara, Urdazubi, Goizueta.
22. Erreportaia. P. ASTIZ
24. Elkarrietzeta. JUAINAS
27. Kirolak. MATTARI - MIKEL IBARROLA
29. Irakaskuntza GABI GOIA
30. Merkatu Ttikia.
31. Denborapasa. ENBIDO

Orain dela hamar urte hasi zirenetik, egunetik egunera hobetzea lortu dute. Gaur egun Baztanen ez ezik, Bertizarana eta Malerreka zenbait herritan ere entzun daiteke Xorroxin Irratia. Orain legalizazioa litzateke falta zaien pausua **22. or.**



Ohizko materien inguruko ikaske-
tez aparte, eskola eta ikastoletan ari
diren gaztetxoek egiten dituzte ere
bertze hainbat aktibitate. Oraingoan,
eskol-aldizkariaren ingurukoak
ditugu. **28. or.**



"Egun, dirudienez, zonaldearen
ertz batean kokatu nahi dute funtzio
zentrala duen zerbitzua" dio Maria
Jesus Perurenak, Baztan-Malerre-
ka-Bortzirietako institutoko Gura-
so Elkarteko partaideak. Hastekoz,
badirudi Lekarotzen ezarriko dute-
la aurrerantzean orainarte Orono-
tzen zegoen institutua **24. or.**



Gure inguruko Kirol Eskolek amai-
tutzat eman dute honez gero ikas-
turtea. Pilota, Saski baloia, eskuba-
loia, atletismoa, futbola eta bertze
zenbait kirolen oinarriak ikasi
dituztelarik **27. or.**

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortzirietako Euskara Mankomu-
nitatea

Nafarroako Gobernua

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:**
Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Juainas Paul Arzak, Patxi Larre-
txea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar
Txoperena, P. Apezetxea, Isabel, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Iban Isasi,
Juainas, Koro Etxeberria, Koro Irazoki, Mañone, Leitzako Ikastari Euskalte-
gia, Olain Elkartea, Alizia Olaizola, Goiko, Josetxo Susperregi, Mattari,
Mikel Ibarrola, Gabi Goia, Pello Astiz eta Enbidok

Inprimategia: Jomisa (Irun)

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du halabeharrez, bere gain hartzen, aldizkarian
adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

BEHARREZKO TELEFONOAK

SOS Nafarroa088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo452367 / 580235

Doneztebe594300

Lesaka637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun587039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren594183

Sunbilla594283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera630929 / 630036

Etxalar635105

Urdazubi599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614444

Nafarroako ospitalea251500

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia262700

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz594242/594342

DYA

Lesaka (larrialdiak)(943) 464622

Elizondo (larrialdiak)171717

FUNERARIA

Lesaka637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leizaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630104

ABERIAK:

Iberduero594335/594336



Hidden Agenda

Hidden Agenda Filma

Ken Loach zuzendaria
(Bretainia Haundia)

Dokumental gisara egindako filma honek eraman du Cannes-eko *Grand prix du jury*, hagitx merezia, jakin dugunez. Gai berezia, Irlandako gaur egungo egoera politikoari buruz.

Bertako preso politikoei inkesta bat egitera joaten diren bi pertsonen hilketari buruzko argudioarekin. I.R.A. gai duela egindako filme honek nahiko arazo dauka Ingleterran banatzeko, ikuspuntu berezi batetik egin delako.

Orain denbora gutxi bere *Family Life* filma ikusteko aukera izan genuen telebistan.

Filma berri hau udazken aldera ekarriko digute.



Martin Scorsese da Van Gogh "Les Corbeaux" ametsean, "Dreams" filman

Kurosawaren "Dreams"

Zortzi amets—dreams—filma testamendu moduan eskeintzen digu Kurosawak, zuzendari zahar bezain ona den honek bere azkeneko filma hontan. Berak egindako *Dersu Uzala* eta *Ran* filmak gogoan dauzkagu oraindik eta berriro "Ametsetara", bere mundura, eramaten gaitu maixu honek, oraingo hontan Steven Spielberg, eta Martin Scorsseseren laguntzarekin. Bere hogeita hirugarren filma hau, zorionez—eta bazen garaia—Cannes, Paris, Londres, Roma, ea. Madrیدهkin batera Donostia, Bilbo eta Iruñean ikusteko aukera dugu.

Mariano

9 LARUNBATA

—Iturenen, akanpada enbaltsean.

—Lesakan, arratsaldeko 8etan, herriko frontoian, "Ama begira zazu" antzerkia, San Fermin jubilatutako eta pentsionisten elkarteak antolatutak.

10 IGANDEA

—Beran, Larun Mendi Taldearen ateraldia: Kopakarrira.

—Iturenen, Trinitate eguna.

—Lesakan, dantzaldia Akelarre taldearekin.

11 ASTELEHENA

—Igantzín, Euskara Batzordearen bilera arratsaldeko 7etan, Biltokín

12 ASTEARTEA

—Beran, Euskara Batzordearen bilera arratsaldeko 7etan, Herriko Etxean.

14 ORTZEGUNA

—Arantzán, Euskara Batzordearen bilera, arratsaldeko 5etan, Herriko Etxean.

15 ORTZIRALA

—Etxalarren, Euskara Batzordearen bilera arratsaldeko 7,30etan Zentroan

16 LARUNBATA

—Iturenen, gaueko 10etan, Udaletxean, "Ama begira zazu"

17 IGANDEA

—Beran, Larun Mendi Taldearen ateraldia: Larunera.

—Lesakan, San Fermin jubilatutako eta pentsionisten elkarteak antolatutak, goizeko 9etan Iruñeko gaiteroak eta Lesakako txistulariak herrian zehar ibiliko dira. 11,30 meza eta 14,30etan bazkaria herriko frontoian.

GOARDIAKO BOTIKAK

—Ekainaren 9-10an, Bera, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

—Ekainaren 16-17an, Arantzía, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo).

TXAPELKETAK

—Baztan Bidasoako Herri Kirol Txapelketan parte hartzeko epea, ekainaren 8an bukatzen da. Parte hartu nahi dutenek, dei dezatela Baztan, Malerreka, Leitzaran edo Bortzirietako Kirol Zerbitzuetara.

BIDAIK

—Arantzía, Bera, Etxalar eta Igantzín, ekainaren 7an, hil bereko 17tik 26ra arte *Arkupeak* Elkarteak Asturias-Galizara antolatutako duen bidaiarako izen emateak egiteko muga eguna.

IKASTAROAK

—Ekainaren 15ean, datozen uztaila eta abuztuaren igeriketa ikastaroak emateko, Bortzirietako Kirol Bulegoan (Lesakako Udaletxean, Tel. 63 70 05) irakasleen inskripzioak egiteko epea.



★ KIXKUR ★
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637492 - LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

Laia

MUSIKA DENDA

San Esteban 37
Tfnoa: 63 10 59
BERA



MALDAERREKA S.A.
«La Suiza» Aseguro
mota guztiak

Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

Zuzendari jauna:

Ni Arraiozko baserritar bat naiz eta nere barridean ikusi nuen lehenbiziko aldiz zuen aldizkaria. Baserri horretan irakurri nuen eta jartzen zuena oso interesgarria zen.

Euskal Herriko notiziak etortzen dira, batez ere Maldaerreka eta Baztangoak, kirolak, kultura eta notizi berri asko.

Askok interesatu zait eta nahi nuke nondik al bada, TTIPI-TTAPA jasotzeko, notizi berriak jakiteko.

Baita ere, nere aitak eta amak hobekiago ulertzen dute euskaraz idatzia, erdaraz baino eta horrela animatuko dira irakurtzera.

Bertzerik gabe, zuen berrien zai geratzen naiz.

Felix M. Mendiburu

Oharra: Aldizkari hori zerbait ordaindu behar bada, aski duzue neri deitzea.

Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzitako 30 lerro baino gehiago ezin dezakete izan. Kartak, izendeituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidaliko dira. Dena den zuen datu horiek agertzerik ez baduzue nahi, ezizen edo izen-goitiz argitaratuko genuke.

Laister, Txakurren errabiaren kontrako txertaketa hasiko da

Ekainak 11, Ezkurra Plazan, 9etatik 11,30etara; **Eratsun** Plazan 12etatik 13etara.

Ekainak 12, Saldias Posadan 11etatik 13etara; **Labaien** Potroan 15etatik 16etara; **Beintza** Potroan 16etatik 17etara.

Ekainak 13, Urrotz Plazan 10etatik 11,30etara; **Oitz** Plazan 12etatik 14etara; **Gaztelu** Posadan 16etatik 17etara;

Ekainak 14, Donamaria Igurinen 10etan, Askarragan 10,45etan, Posadan 11,30etan, Artzen 12,15etan; **Elgorriaga** Herriko Etxean 16etatik 17etara;

Ekainak 15, Ituren Herriko Etxean 10etatik 12etara; **Aurtitz** Frontoian 12,30etatik 13,30etara;

Legasa Plazan 16etatik 17etara;

Ekainak 16, Doneztebe Herriko Etxean 10etatik 14etara;

Ekainak 18, Zubietza Herriko Etxean 10etatik 14etara;

Ekainak 19, Sunbilla Mikeleanean 10etatik 16etara;

Ekainak 20, Narbarte Hiltegi zaharrean 10etatik 12etara; **Oieregi** Plazan 12,30etatik 14etara;

Ekainak 21, Goizueta Herriko etxeko plazan 10etatik 16etara;

Ekainak 22, Arano Plazan 11etatik 13etara; **Areso** Plazan 16etatik 17etara;

Ekainak 23, Leitza Plazan 10etatik 14etara;

Ekainak 25, Leitza Plazan 11etatik 14etara.


¡¡Una rata por habitante!!

MATE VD. SU RATA

Colabore con la campaña de desratización

Días 29 - 30 - 31 de Mayo

Arratoiaren "veda" irekita dago



Baztan, Bidasoa eta Maleirekako etxe, baserri, pisu, bajera, eraikitze lurrak eta eremua duten borden berri ematen da

Jose Antonio Elizondo
EZKALO

tfnoa: (948) 59 40 54 Intzakardi, 8
DONEZTEBE



Bera eta Lesakako industriarako gas naturalaren ekartzea aztertzen ari

Gauzatuko balitz etxeko kontsumorako gas hornidura erraztu egingen luke

Duela bi urte t'erdia gasa etxeko erabilpenerako Iruñera iritsi zenetik adierazitako bi herrietan kokaturiko enpresa garrantzitsuek beren interesa agertu zuten, baina urruntasunak eta bertze oztopoek eragozti egin dute gasa ekarketa orain arte, Orereta eta Iruna iritsi denean.

Zenbait bilera

Gasbidea jadanik Iruñen egoteak, Bera eta Lesakarako luzatzea egingarri egiten du. Modu honetan, egitasmoaren ezaugarriak, obraren aurrekontua eta finantzaketa aztertu asmoz, azken hilabeteetan zenbait bilera egin izan dira udalbatzakide, enpresen ordezkari eta gas konpainien artean. oraino akordiorik lortu ez bada ere, Bilboko "Ingeniería y Dirección de Obras y Montajes" IDOM delako enpresari aurregismoa-



Berako industrialdea

ren idazketa ardura eman diote.

Gasbidea trenbide zaharretik

Enpresen iturriek adierazi dutenaren arabera, gasa "GAS EUSKADI" k hornituko du, banaketa sarearen ezarketa berriz "ENAGAS" konpainiaren gain joanez. Irundik Berarako gasbidearen ibilbidea-ri dagokionez, garai bateko Bidasoa izeneko trenak erabilitako bide berbera litzateke; gero, Bidasoa ibaia

gurutzatuz, Zalaingo industrialdera iritsiz; hemen-dik, Zalain Zokoko "Laminaciones de Lesaka" ren lantegira abiatuko litzateke; ondoren, Lesakako Baldrun mendian goiti Nabatz auzoan dagoen enpresa beraren lantegira jaisteko. Aurrekontua 500 milioitakoa izan daiteke eta egiteko epea sei hilabete ingurukoa.

Ekarriko den gasak industria arloan erabiltzen diren zenbait errekinen —

fuelolioaren—ordekoa batez ere izanen da. Gasbide honen garrantzia haundia da; adibide bezala, "Laminaciones de Lesaka, S.A." ren lantegiek urteko 8.000 tona gasa kontsumitzen dutela kontutan hartuz, egunero bi ontzi kamioietan errepidez garraiatzen direlarik, biltegian pilatzeko, guzti horrek sortzen duen arrisku-ekin.

Etxeko kontsumoa

Industriarainoko gasaren bideraketak etxeko kontsumorako ere erabiliko litzatekeen Bera eta Lesakan beste hornikuntza sare baten ezarketa erraztuko luke epe laburrean; aitzinagotik, kostu eta errentagarritasun azterpena eginez, Arantza, Etxalar eta Igantzi herrietara hedatzeko.

ROMAN HARRIBILAGA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

**OSKORRI
LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE.

B RADIO
BIDASOA

SUKALDE ALTZARIAK
Legia, 42 Tfnoa: 63 03 77 BERA

**TELEBISTAK
BIDEOAK
ELEKTROGAILUAK**

**SALMENTA ETA
KONPONKETAK**

CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi

Gibel-gizena

Urdai azpikoa

Ahate-hegalak

Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07
BERA



LACOSTA ANAIK

FORD BANATZAILEA

Zalduvia Poligonoa

Tfnoa.: 45 21 19

IRURITA

FONDA
XATURETXEA

Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA



Legia 11 - 63 06 64 BERA

BATZOKI

JATETXEA
OSTATUA

Tfnoa.: 63 79 31
Lesaka

Santiago
40



ELIZONDO

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



Drogeria MOLINERO



Paper pintatuak
Pinturak
Moketak
Drogeria

Tfnoa: 63 02 40
BERA



DROGERIA

Altzate 37, 630388 - BERA



JATETXEA

Tfnoa: 580101

Santiago 1
ELIZONDO



Tfnoa: 63 11 38
Pilota Leku ondoan BERA

BOTXO
ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

Saihesbidearen lanak aintzinduak

Urte ondarrerako burutzea iragarrita dago



la bederatzirehun milioi gastatu dituzte saihesbidea egiten

ROMAN HARRIBILAGA

Iragan maiatzaren 24ean, ortzeguna, goizeko 6etan Zalain aldetik tunelak argia ikusi zuenean, Berako saihesbidearen lanak beren gauzabide azkenari hasiera eman diotela erran daiteke. Ziurtatzea erraza ez bada ere, herrigunea zeharkatzen duen errepide edo karretera nagusian barrena igarotzen den 5.000 ibilgailu (%20a baino gehiago kamioiak) trafiko kopuruaren zati bat desbideratuko duen saihesbide honen amaiera urte ondarrerako dago iragarrita.

Ezaugarri garrantzitsuak

Sei sarrera-atera leku —Bera aldera Zalaienen, Alkaiaga aldera “Bezerro” meazulo aldean, Industrialdean, Alkaiaga eta Bera aldera Geltokiko zubian, Alkaiaga eta Otsangoko harrobietan eta “Arkaitza” harrobi ondoan Beran— eta guztira 1.972mko luzera izanen duen errepide hau 1988ko abuztuan

hasi zen egiten. Bere bidean zenbait ezaugarri berezi aurki daitezke, hala nola Alkaiaga auzoa zeharkatzeko balio duen eta azken 40 urteotan Nafarroan egin den tunel bakarra: 270mko luzera du, 13mko zabalera eta 8mko garaiera; 3,50mko bi errei edo karril eta 1mko bi bazter eduki-ko ditu. Zulaketa, makina berezi batez egin da, eremuak toki batzuetan %50eko portzentaia zeukaten kuartzo zerroez (betak) eraturik zegoenez gero, lanak zenbait zailtasunez burutu izan dira. Bertze tokitan berriz, eremua beratza aurkeztu da, tunelaren ganga (bobeda) josi eta zertxaz eutsi behar izanez.

Saihesbideak bi tokitan gurutzatuko du Bidasoa ibaia, hainbat zubi-
ren bitartez. hauetako bat “Fundiciones de Bera, S.A.” enpresaren urtegi ondoan kokaturik dago, oker antza eginez eta sei zutabe edo pilaren gainean jaso, 145mko luzera du eta bestea, Zalaingo Industrialdearen ondoan, 163,5mkoa da. “Lauza

zubia” moetatako eta 20m x 20mko neurriak dituen behebide bat ere egin da “Laminaciones de Lesaka, S.A.” lantegira sartzeko.

Guzti honen aurrekontua

“Fomento de Obras, S.A.” enpresak burutzen ari duen egitasmoak 900 milioitako aurrekontua dauka. Darabilen bataz bertzeko langile kopurua 30ekoa da, bertze enpresaren langilegoa ere batzutan erantsiz.

Udala polikiroldegi onaren bila

Iruñeko Hezkuntza eta Kultura Saila eta Berako Udalaren arteko akordioa sinatu ondoren, azken honen polikiroldegi estali hobe bat eraikitzeak asmoa azaldu du orain. Erabakia, Bortzirietako Kirol bateragilearen txostenetan adierazitakoan oinarritu da, etorkizunari begira moeta honetako eraikuntzak neurri haundiagoak eta kalitate gehiago behar omen bait ditu. Hasieran, pabilioia, pista eta ikusleentzako lekuak egingen dira, aldagelak, soinketalekua, biltegia... gerorako utziz. Aurrekontuaren 79 milioitik heren bat Udalak ordaintzeko bazen, 250 milioietaraino igoko den gainerakoa udalaren gain izanez.

Musika eskolaren isolamenduaren adjudikazioa

Osoko bilkuran, Udalbatzak Musika Eskolako barnea isolatu edo aislatzeko lanak “Construcciones Irurek” eta “Aislamientos Labril, S.A.” enpreseei adjudikatu dizkie. Lanen gauzabidea berehala hasiko da.

Karrikak hankaz gora

Ur-sarea, saneamendua, telefono haria eta argi-indarra sartuko dira

M.K.T.

Azken hilabete hauetan karrikak ankaraz gora daude ur sare berria dela eta. Seguruenik oraindik hilabete batzu joanen dira, dena lehen baino hobe ikusteko zeren eta, aspaldi asfaltatu beharreko karrikak obra hau amaitzen denean eginen dira.

Ur sare berriarekin batera saneamendua, telefono haria eta argi-indar sarearen zati bat lur azpitik sartuko da. Hasiera batetan ur sarearena bakarrik egitekoa zen eta 12 hilabetetako epea zegoen honetarako baina herri erdia zulatu behar zenez aprobeztatu da bertze obra horiek ere egiteko, honela herria urte batzuetarako ekipaturik geldituko da.

Ur hornikuntzari dagokionez, erabat berrituko da, honetarako hemendik 25 urtera egiten duten biztanle prebisioa 4.176 lagunena izan da eta 150 l. biztanleko eta



San Ferminetarako karrika berdinduko dutela espero da

eguneko behar izanen dela, 50 urtera 20 l/s.

Ura Urraba errekatik hartuko da eta lehorte garaian egindako neurketetan behar adina ur izanen da pre-

bisio hauek betetzeko.

Urraba errekatik ura hartzearen kostoa 1.595.408 pezetetako izanen da, ura depositora eramatearen kostoa 25.714.881 pezeta, depositoaren eraikuntzak 24.588.825 pezeta, herri ura eramateak eta hodian sareak 66.632.550 pezeta, guzti hau 1985ean egin zen aurrekontuaren arabera. Erran bahar, obra hau osotara Madrilako Gobernuak ordainduko duela.

Bertzaldetik saneamendu obrari dagokionez, lehendik egin dagoen zerbait mantenduko da eta bertze guztia berritu edo berria eginen da.

Horrela ur zikinek eta euri urek behar duten kanalizazioa izanen dute. Honen kostua 73.845.132 pezetetako izanen da, Nafarroako Gobernuak % 67,1 ordainduko duen berritze 32,9 Udalaren eskutan geldituz.

Obra guzti hauek Mariezkurrena Eraikuntza enpresak egiten ditu.

ETXALAR

Haurren asteazken arratsaldeetako iharduerak

PELLO APEZETXEA

Bertze herritan bezala, hemen ere bada urte pare bat haurrekin zenbait gauza interesgarri burutzen dela asteazken arratsaldeetan; hala nola, dantzak eta kirolak. Hori, bi edo hiru herritarren borondateari esker.

Orain, ariketa gehiago egiten ahal direla eta, guraso batzuk euren laguntza eskeini dute, zenbait gazte

ere hurbiltzen zaizkiela noiz edo noiz. Eta hor ikusten ditugu karta jokotan jokatzen nahiz orratza eta haria erabiltzen, etabar. Eskulan gehiagotan aritzeko asmoa ere badago, ordea, gurasoak horretarako prestatu ondotik, kanpoko norbait ekarri. Kirol ihardueratarako (aktibitateetarako) ere laguntzaile gehiago hurbildu denez gero, Bortzirietarako Kirol koordinatzailea barne,

kirol mota gehiago burutzeko bidea dago.

Asteazken arratsaldea orain arte ere interesgarria bazen, martxa honetan gero eta inportanteagoa eta beharrezkoagoa bihurtuko da haurrentzat. Agian gurasoak ere animatzen joanen dira oraingoa ikusirik.

(bertze aldean segitzen du)



1989ko diru sarrerak

Aintzineko *ttipi-ttapan* Udalaren iazko gastu nabariak aipatu bagenituen, oraingoan gauza bera egingen dugu diru sarrerekin, larrienak eta jakingarriak azalduz.

Kanpotik, Nafarroako eta Madrilgo gobernuaren eskutik etorritako dirulaguntzak: 68.000.000 pzt.

Herrian bertan bildutakoa: Arbol enkantetik (subastatik) 11.142.000, Kontribuzioak 4.439.448, Usategietakoa 2.291.517, Zirkulazio zerga (inpuestoa) 1.771.583, Auzolanak 1.089.130 eta Okindegiaren irabazia 358.000.

Baztan eta Zugarramurdi bidearen moldaketa kontuen kitapena

Egindakoaren kostu osoa 113 milioitakoa izan da, berauetatik 7 milioi teknikarien ordain sariak. Hara nola burutu den ordainketa: Nafarroako Gobernuak 83 milioi, Etxalarko Udalak 12 milioi berre-

Asteazken arratsaldeko ariketetan

hun mila pzt., Baztango Udalak ia 10 milioi, Zugarramurdiko Udalak 7.700.000 pzt.

Gasolindegia Latsabean eraikitze oztipoak

ISABEL

Dyef Española SA-k gasolindegia muntatu nahi du Latsabeko eremuan, eta Herriko Etxean baimena

eskatu ere, eskatu zuen. Nafarroako Gobernuak ordea ez du lekua egokitzen ematen. Desegokitasunaren arrazoiak bi dira: bat, legearen arabera ezin omen da gasolindegirik bideguretzetik 150 m. baino guttiagotara eraiki. Bi: denboraz errepidea (karretera) zabaldu behar izateak, Latsabeko lur horretaz baliatzea eskatuko duela.

IGANTZI

Aurten egindako plantazioak egoera penagarrian

OSKAR TXOPERENA

Joan den neguan Udalak, Nafarroako Gobernuak Mendi Sailarekin batera, egin dituen plantazioak egoera kezkarrian daude.

Fraingo kaskoan dagoena izugarri jo zuen lehortek hasiera hasieratik eta hor hondatu zen planta pila bat. Baina, horretaz aparte Txantrek egindako pistak zerrakurretan eragin zituen kalteak, bidea libre utzi zieten ardiei. Jakina da ardiek ez badute bertzerik aurkizten plantak jaten dituztela. Dirudienek, orain moldatu dituzte.

Eta hori ez bazen aski, zenbait

jendek pista zaharrean dauden atakak irekiak uzten badituzte pasatzerakoan, hemen ez dago deus egitearik.

Bertalde, abisu bat iritsi zen Lesakako baserri batetatik Zeruneta ondoko plantazio ospetsu horretako gaineko zerrakura guztia hankaz gora botatua zegoela. Noren gain botako ote dute orain lan hau bere egileek?

Izugarritzko ikaria Igantziko Bentatan

Duela bizpauzi aste izugarritzko ustekabea suertatu zen Bentako auzoan.

Eguerdia aldera eta zenbait lagun kanpoan zeudela lehertu egin zen Abelu aldetik zentraltik datorren tuboa. Garai honetan eta aintzineko hilabeteetan egindako eurien ondorioz, bete-betean zetorren tuboa urteen poderez arraildu egin zen eta lehertu. Bertako langile batek erran zigunez 75 urte omen zituen tuboak paraturik, beraz, ez da arraroa holakorik gertatzea.

Ba, leherketa izan zela eta izugarritzko erreka omen zetorren Berri-zaun eta zentralaren tartetik. Berri-

(bertze aldean segitzen du)





Siankope Brothers Jazz Band Igantzin egon zen

zaungo gaineko aldeko borda xehe-
tu zuen eta bide guztia altxatu. Gai-
nera ikuiluan zeuden oilo guztiak
itto omen ziren, izugarritzko honda-
rra barrura sartuaz.

“Siankope Brothers” ek saio ederra eskeini

Talde honetatik zortzi anaietatik

bi bakarrik, madrildar bertze bi
musikariz lagundurik etorri baziren
ere saio oso entretenigarria eskeini
zuten.

Problema ttiki-ttiki bat bertzerik
ez, jendeak ez diola horrelako anto-
lamenduei behar bezala erantzuten.
20 edo 25 lagun bertzerik ez zegoen
saioa ikusten eta azken finean gogo-

ratzen den galdera zera da: merezi al
du horrelako talde interesgarri bat
ekartzea, ordaindu behar duenak
hainbeste ordainduz, 20 edo 25 la-
gunek entzuteko?

Unanu Taldea Donibane Lohitzunen

Maiatzaren 26an Euskalerriko
Haur Kantu Lehiaketaren finala izan
zen Donibane Lohitzunen.

Unanu Taldea, taldeka Nafarroa-
ko txapeldun geratu zenez hantxe
joan zen bertze garaipen bat lortu
nahirik. Baina, arerioak indartsuxia-
goak izaki, ezin izan zuen lortu bere
asmoa. Bere sailean Oreretako cso
talde on batek irabazi omen zuen
txapelketa.

Dena den, antolaketa aldetik Iru-
ñeako saioa askoz hobekiago pres-
tatua omen zegoen aipatzen ari gara
baino, soinu aldetik batez ere.

ARANTZA

Mutikonborda baserria erre

JON LARRETXE

Maiatzaren 27an, larunbatetik
iganderako gauan, kixkalirik geldi-
tu zen Mutikonborda baserria. Goi-
zeko lanak aldera hartu omen zuen
suak eta nonbait erregai onak aurki-
tu —ahotz franko omen zegoen.
Sua, badirudi, baserriko ikuluan
zegoen ahotz multzo haundian hasi
zela, oraindik nola edo zergatik
hartu zuen antzeman ez delarik,
abiada bizian etxe guztira zabaldu
zen, etxearen bortzetatik bat edo,
suak ukitu gabe salbatu zelarik.

Mutikonborda baserriaren jabea
Martiko soziedadea dugu eta gaur
egun ez da inor bizi bertan. Marti-
ko enpresan bertan ahate granja,
gizenleku, ahate hiltegia eta abar



Mutikonborda baserria

dute baina eraikuntza guzti hauek
baserritik kanpo daudenez ez dira
suak kaltetuak gertatu.

Suak eragin dituen galerak base-


erria ia guztia eta bertan zegoen tres-
neri apur bat, ahatetan erabiltzen zi-
ren botikak, franko ahotz multzo bat
eta zenbait gauza txiki izan dira.

Bariantearen referendumean eskuineko aukerak hobetsi

PATXI PETRIRENA

Hemezortzi urtez goitiko 620 biztanleetatik 355ek, % 57'2ak, eman zuten botoa joan den maiatzaren 27an herriko saihezbidea egiteko aukeretako bat bereizteko planteatutako referendumean. 237 boto Bidasoaren eskuin aldetik egitearen aldekoak izan ziren, A eta B aukerak kontutan hartuz (ikus kuadroa), eta 115 ezker aldetik. Hala ere, eskuin aldeko bi aukeren artean hiru botoren aldea bertzetik ez zen atera, 120 A-k eta 117 B-k.

Referendumaren ondoko ple-noan, Udalak baloratu zuen botazioaren emaitza eta aintzinetik kontutan hartu gabeko faktore bat; hain zuzen ere, boto emaleen parte haundi bati ez zitzaioela A edo B aukeratzeko biderik eman, ezker aldetik egitea botatu zutenei alegia, berdintasun haundia egonik gainera. Dena den, kontsulta berri bat



Boto kontaketa

egitea baztertu zen eta gauzek lehen-go bidea segituko dute, botorik gehien atera zuen proposamena baita

orain arte bideratzen ari zena, hau da, fabrika dagoen lekutik abiatzen dena.

ZENTSOA	BOTOAK	ESKUINA	EZKERRA	ZURIAK	BALIOGABEAK
620	355	A — 120 B — 117 237	115	1	2

Referendumnaren emaitzak

ELGORRIAGA

Eskolaren berritze lanak akituxeak daude

TXEMA ALDABE

Garai batean Elgorriagako eskola zena, haurrak Doneztebeko eskolara hasi arte, berritu eta egokitzen ari dira, premia duten zenbait gauzatarako erabiltzeko, batez ere kultur arlokoak. Lehenbiziko pisuan eskola paratzeko inientzia dute, haurren kopurua goitzen bada, bedere-

ren. Bigarrenean, bideo-gela, liburutegia, solasaldietarako aretoa e.a. eta hirugarren pisuan, berriz, joko edo jostaketarako gela izanen lirake. Azpian, gimnasioa edo antzeko gauzak egiteko.

Moldatze lanak akituxeak daude, goiko pisua xuritzea eta behar diren altzariak ekartzea bertzerik ez da

gelditzen.

Eskola honen historia hagitz interesgarria da. 1921 urtean eraiki zen Esteban Matxiñenaren aginduz. Elgorriagan sortutako gizon hau ameriketara joan zen eta itzuli ze-

(bertze aldean segitzen du)





Elgorriagako eskola berria etxe honen lehen solairuan egonen da

nean bi eraikuntza, bata eskola eta bertzea frontoia egin zituen bere sosaz. Berak idazten eta irakurtzen ez zekienez, bera bezalakorik Elgorriagan atera ez zedin Udalarari eman zion etxe hau eskola modura erabil zezan. Honetaz gain frontoia ere Udalaren eskutan utzi zuen. Jokae-ria miresgarria benetan berea.

Presa garbitzen hasi dira

Urak ekarritako harri kozkor eta lurrez berdindua zegoen presa garbitzen ari dira aipatutako zabor guzia ateriaz. Balnearioaren ondoan kokatua dagoen hau, inguru honetako pizsina da eta bisitari aunitz biltzen ditu. Pareta dagoen tokian hiruren bat metro sakonera izanen li-

tuzke eta luzera 40ren bat igeritan ibiltzeko. Langabezian dauden hiru mutil hartu ditu Udalak lan hau egiteko.

Edateko ur deposito berria

25.000 litroko ur-deposito berria egin dute, lehen zuen uraren indarra bikoiztuz. Orain dela 26 urte egin zen gaur egun dagoen sare hau eta garai hartan 20 urteko garantzia zuen. Gaur egun arrunt hondatuta dago. Dena den, Udala, ur sarea konpontzeko eta berritzeko asmotan dabil, epe motzera egiteko asmoa dutelarik.

Balnearioren gorabeherak

Balnearioa gotti balnearioa betti jendearen ahotan aspaldi xamar honetan. Zehazki jakiten ez bada ere soziedade bat, erostearen gibeletik omen dabil. Dirudienez elkarte honek erosteko eskubidea erdietsi du eta diotenez 30-35 milioitan erosiko ditu balnearioa kokatuko den orubea.

URROT Z

Frontoi eta Mediku-Kontsulta berriak

TXEMA ALDABE

Lehenago eskola zaharra zegoen tokian, denbora gutti barru frontoi estalia izanen da. Horixe onetsi du Udalak, dagoeneko proiektua onartua dagoelarik. Migel Angel Ezkurra, alkatearen asmoa Sanmigeletako akitzea izanen litzateke, baina oraindik lanak hasteko, paperaren bat falta da. Frontoiaren kostoa 22,5 milioi ingurukoa izanen litzateke, dena Udalak ordaindu beharko duelarik.

Eskola zena botako duten honetan, erran behar da ikasturte hasie-



Urrotzko Eskola zaharra dagoen lekuan egingen da Frontoi berria

ran herrian eskola paratu bai ala ez ibili zirela, horretarako aukera bait zegoen eta kostoaren zati haundi bat, dena ez bazen ere, ordaindua zegoe-larik. Azkenik, gehingoez ezezkoa erabaki zuten eta haur guziak Donetztebera joaten segituko dute.

Bertzalde, hagitz abudo mediku-kontsulta berria egingen dute errota gibelkaldian. Dagoeneko proiektua onartua dago. Ia 7 milioi kostako da hau egitea eta 423.000 pezeta kostako da barrendik jaztea.

Ekainaren 10ean Trinitate eguna

IBAN ISASI

Aurreko egunetik Mendaurrera joan nahi duenak, Malerrekako Kirol Elkarteak urtegiari antolatutako akanpadara joan daiteke, aintzinetik 59 43 02 telefonora deituz.

Igandean, goiz goizetik, Mendaurren mendia tontorreraino igotzeko eta basei izan, nahi duenak meza entzun dezake. Ondotik eta ohitura bihurtzen ari denez, enbaltsean, etxetik eramandako bazkariak bazkaldu. Erromeria honekin bukatzeko, Iturengo Plazan dantzaldia izanen da EGAN Taldearekin. Bertsolariak ere arituko dira.

Bestak uztailaren 13tik 17ra ospatuko dira

Aurtengo herriko bestak egun bat gehiago edukiko dute, asteartean bukatuko bait dira. 13tik 17ra ospatuko dira eta hauetan, oraindik egitaraua osoki prest ez badago ere, oraingoan, Egan, Haritza, Izotz eta



Martin eta bere Taldea etorriko dira jotzera; gainera, txirrindulari bira, aizkolariak, trikitilariak, zenbait kontzertu eta bertze hainbat ekitaldi egonen da besta hauetan eta hauetaz, hurrengo aletan emanen dugu berri.

Bertze borts Trikuharri aurkitu

Francisco Ondarrak "Bertitzarrena eta Malerrekako Trikuharriak" izena duen liburuxka bat atera du

berriki inguruotan aurkitutako Trikuharriak biltzen dituelarik.

Iturenen aurretik aurkiturikoetatik aparte bertze borts aurkitu dira ondoko paraje edo lekuotan: Garatama, Epeintzako kaskoa, Arrutalan, Aitzurra eta Erdiko xendan.

Iturendik kanpo, bertze borts aurkitu dira; bat Saldisan eta bertze lau Bertitzarrena —hauetako gehienak Bertitzeko Jauregiaren inguruan—.

ZUBIETA



JUAINAS

Maiatzak, alde egitean, udako giroa huzten digu, nahi ta nahiez. Iurretako bestak altxaferuak bailiran, hasiera ematen dute. Hemendik aurrera igandeko kantua ezaguna egingen zaigu: hangoak eta hemengoak, ez dakit nongo festetara joanak.

Igande eguerdian etortzeko dira, oraindik... gaurko gazteak... Antzi-

(bertze aldean segitzen du)



nekoen antza handikoak dira, dudarik gabe! eta,

Gure fiestak?

Betiko kexua dugu. Urtetik urtera musikoak lortzea zailagoa da, —edo egiten zaigu—. Aurtengorako badira, musikoak bederen, beste guztia hankaz gora dagoelarik. Taldeak hauxek dira “Maniak”, “Ahalmén” eta “Izan”. Gaiñekoa antolatzeko ekainaren 17an, atsaldeko bostak inguruan elkartera dei-

tzen dugu, nahi eta gogo duten guztiei. Interesatua Errandoneko atarira etor dadila.

Gazteekin gabiltzala, zein politak diren haurrak, kankaildu aurretik, noski. Prueba nahi dutenentzat hara lehenbiziko komunioa hartu zutenak (jaunartzea?). Pena, bestaberrikoa dugu, ondoko iganderako atzeratzen ez badute. Ekaina martxosoa izanen zen. 10ean, Treintatea, 17an bestaberri deskafeinatua...

Baina uda ezda, soilik, festengatik nabarmentzen... nagusienak dira...

Belarrak

Goiz hasi direla, aurren, gainera! Portzierto... moda edo modu berria ote da Ibarneko soroarena... apropos egina ere ez daiteke hain gaizki ebaki, lurra edo belar bigotiaz beterik... Herri kirolak finkatuko balira ez eraman hori segako apostura.

SARA

Ibilaldi arraroa: Sarako Itzulia ekainaren 17an

OLAIN ELKARTEA

Bigarren aldikotz, AXURIA Sarako mendizale elkarteak antolatzen du Sarako Itzulia-90. Oroitaraz dezagun AXURIA taldea sortu zela

duela hamar bat urte Sarako mendi baten izena hartuz, hunen buruzagi delarik hastapenetik Beñat Aguerre jauna.

Zergatik ibilaldi hori? Bereziki

eskualde guztietako mendizaleak elkarretaratzeko gisan, baita ere Sarako bidexka eta ttonttorretan zehar ibilaraziz.

Beraz, larrizki aurkeztu ditzagun

**HERRIKO ETXEKO
EDANTEGIA**
BAR DE LA MAIRIE

Michel Guerendiain

SARA - LAPURDI - Tél. 59 54 25 19

LE SWING
CLUB DISCOTHÈQUE

RN 10 - Croix des Bouquets
URRUGNE - Tél. 59 20 31 26
SALLE CLIMATISÉE

PAMPI
SPORTS


SAINT-JEAN-DE-LUZ - Tél. 59 26 07 93

PIERRES DES PYRÉNÉES

- dalles pour jardins et terrasses
- pierres taillées
- bâtiment - cheminées

SARE - 64310 Ascain
Dépôt et bureaux : route de Saint-Jean-de-Luz
64310 ASCAIN
Tél. 59 54 01 03 - 59 54 42 50 - Fax 59 54 01 29

UAP
N°1 OBLIGE



eIDER
High - Tech Actionwear

Sarako Itzuliaren laguntzaileak

egun hortako egitarau eta xehetasun batzu. Ibilaldi huntan parte hartzeko deitu zenbaki hauetara: AXURIA tel. 59 54 25 26, Herriko Etxeko Edantegia tel. 59 54 25 19, Pampi Sports tel. 59 26 07 93. Sartze dretxo: 10 libera edo 200 pezeta. Abiadak: Plazan 7ak eta 9ak artean. Heltzeak: Plazan 4ak eta 8 t'erdia artean.

Nundik Nora

Sarako plazan (75m) hasten da. Plazatik hurbil bide zahar bat hartuko dugu, eta ondotik xendra batek eramanen gaitu *Larruntiki* (517m) kaskorat. Trenbidea gurutzatuz *Korralehandi* ondotik iraganez *Airagarriko* harrespilak miretsi ahaliko ditugu. *Iturri Adarretan* trenbidea berritz gurutzatuz, *Atekaleun* (763m) deitu pasaia gaiditu behar da, ondotik *Lizuniagara* (158m) heltzeko. *Ibanteliko* igaite bortitza dugu hor, ezti-eztia egin behar lita-



Sarako Itzuliaren ibilbidea

kena, eta 40 mugarria (605m) iraganez *Lizarrietara* jaitsiko gara (441m). Hemen lehen kontrolgunea.

Gainez-gain, bidezabal harriztatu zein belartsu batez *Munoenborda* (489m) Sarako azken etxeraino. Hemen ba dira bi hauta: •Usaiako bidez *Lezeoraino* (191). •Atxuria (756m) kaskoraino igan, ikuspuntu xoragarri baten goatzeko parada

izanez. Azken bide honek ez du *Sarako Itzuliaren* markarik, baina urdin/laranja kolorezko tindurak ageri dira, kaskoraino lehenik eta ondotik *Lezeoraino*. Hemendik igaitez bidea 45 bat minutaz luzatzen da.

Lezetik bide harriztatu batek bigarren kontrolgunerat eramanez gaitu.

Bentatik bentara *Cherchebruit* (32m) deitu tokiraino hirugarren kontrolgunerat.

Gaztelu (237m), *Suhamendi* (301m), *Mendibidea* (278m) iraganez ditugu *Santiaziora* (168m) jausteko. Hemendik Sararat buruz, bide zahar eta eder batez.

Egun horren bururatzeko, plazan izanen da janari, edari, musika arratsalde apaletik goiti.

Zatozte gogotik, egun on baten pasatzera gure artean.

ZUGARRAMURDI

Kaximir Largok irabazi

KORO IRAZOKI

Zugarramurdik ez du preziskiz *pilotazale* fama haundirik bainan noiz-behinka muntatzen dira partido interesgarri batzuk. Hauetatik bat jokatu zen joan den Maiatzaren 18an arratsaldeko 7.30etan.

Egun pare bat lehenago agertuak ziren ostatueta kartel *misteriotsu* batzuk: Zugarramurdiko *Beti-jai* Frontonean; alde batetik: Xita Perez eta Redondillo Jimenez, eta bestetik Kaximir Largo —bera bakarrik—, jueza: Jaxinto bertsolari.

Segidoan jakin ginuen pilotari flamante horiek Xota eta Pedro alde batetik eta bertetik Pello zirela, jue-



za berriz Txomin ginuen.

Eta egia erranez, partidu hau bestetakoa bainan hobekiago prestatua izan zen: Huarte, Axun eta Alinen artean frontona garbitu, belarrak ekendu, zerrautsa bota eta majo-ma-

joa utzi zuten —gero Huartek erranen zuen ez zuela behinere halako gustutako laguntzarekin lan egin—. Mikelek bere bideoarekin filmatu zuen eta Helenak *tipi-ttapa*koz

(bertze aldean segitzen du)



argazkiak atera zituen. Txominek — Jaxinto bertsolari— iparraldean egiten den bezala kantatu zituen tantoak, eta azkenean Pello izan ginuen irabazle 41-50. Gero, handik lekura, eta jendearen txaloen ondotik, gustura jan zuten Herriko-etxean apostua eginga zuten afaria.

Karakolekin

Ez dakit nola izanen den zuen herrietan baina Zugarramurdin beti, aurtan ikaragarria da. Karakoletaz ari gara.

Baratzetan, paretetan, belaien

pazotetan eta ez garelakoz deskuidatzen ez zaizkigu ohe azpian ere agertzen. Lehengo aldian komentatzen zuten gauaz baratzetat joan eta ormaren gainean ibilki bazinen bezala *kris-kras-kris-kras* karakolak lehertzen ohartu gabe.

Bainan suete pittatekin behar bada konponduko zaigu afera hau batere pozoinik edo bertze erremediorik gabe: Kaiet eta Elenitari esker.

Bi haurtxo hauek ibili ziren baratzez-baratze karakol biltzen eta

lan haundirik gabe pila bat bildu zituzten. Gero sareko boltsa batzuetan kiloka paratu zituzten eta igandean Laxoinek ondoan kartel haundi batez: **KARAKOL KILOA: 250 pzta.**, den denak saldu zituzten.

Orain espero dugu *negozioa* hain ongi atera eta aintzina segitzea. Horrela hiru txori hilko ditugu tiro batez: Hiritarrak lan gutxiagoz pozik bueltatuko dira beren etxetatik karakol preziatuekin, gure baratzeak eta bazterrak karakolez garbituko ziren eta Kaiet eta Elenitak txupa-txus erosteko diru gehiago izanen zuten.

GOIZUETA

Goizuetako XII. Oinezko Lasterketa edo Krosa

P.A.

“Umore Ona” elkarteak antolatua, Guraso Elkarteak eta herriko dendariak ere laguntzaile zirela, maiatzaren 27ko lasterketak 131 partaide bildu zituen: 82 gizaseme eta 49 emakume. Beraien artean kanpotarrak lauetatik bat inguru izan dira, gipuzkoarrak gehienak.

Lasterketa mailak zazpi ziren: 6 urte artekoentzat, 300 metrotako ibilbidea; 7-8 urtetakoentzat, 400 metrotakoa; 9-10-11 urtetakoentzat, 1.600 metrotakoa; 12-13-14 urtetakoentzat, 3.200 metrotakoa; 15-16-17 urtetakoentzat 6.200 metrotakoa; 18 urtez goiko emakumeentzat 6.200 metrotakoa; 18 urtez goiko gizasemeentzat, 9.300 metrotakoa; 40 urtez goikoentzat 9.300 metrotakoa.

Irabazleak :

6 urte arteko mutikoetan, *Ibai Zubiri*; nexkatan, *Nekane Elizalde*; 7-8 urtetako mutikotan, *Josu Eskudero*; nexkatan, *Amaia Lujanbio*; 9-10-11 urtetako mutikotan, *Aimar Olaizola*; nexkatan, *Arantzazu Azpiroz*; 12-13-14 urtetako



mutikoetan, *Frantzisko Borja*; nexkatan, *Arantxa Atxukarro*; 15-16-17 urtetako gizonezkotan, *Aitor Etxeberria*; emakumezkotan, *Maitte Perirena*; 18 urtez goiko gizonezkotan, *Pedro Mendez*; emakumezkotan, *Juli Sagastibeltza*; 40 urtez goikotan, *Antonio Alduntzin*.

Kanta lehiaketan sarituak

Donibane Lohitzunen burutu zen maiatzaren 26an, Haur Kanta Txapelketa. Nafarroatik parte hartu zutenak Urdiain, Igantziko eta Iruñe-

ko taldeak eta Goizuetako bikotea izan ziren. Hau, Dani eta Ainara NARBARTÉ anai-arrebak osatua, txapelduntzat eman zuten bikoteen artean.

Aurtan, aek ikastaroak

KORO ETXEBERRIA

Iaz, ez zuen hemen barnetegirik antolatzerik izan, eskolako birmoldaketa zela eta, baina aurreko bi udatan, erakunde honek, ikastaroak antolatu zituen, jende asko hurbildu zelarik bertara, oso giro ona sortuaz herrian.

Baztani buruzko kultur astea Donostian

MAÑONE

Donostiako Udalak Baztani buruzko kultur aste bat antolatu du maiatzaren 28tik ekainaren 3a arte. Baztango historia, artea eta sukaldaritza, egun hauetan protagonista izanen dira gipuzkoako hiriburuan.

Hogeitazortzian Mariano Izeta euskaltzale eta idazleak "Baztandarrek ta bere solasak" hitzaldia eman zuen. Hogeitabederatzian, Alejandro Arizkun, Nafarroako Unibertsitate Publikoan irakasle denak, mintzaldi bat eskaini zuen Baztango ekonomiari buruz.

Mahai inguru bat ere egin zen Baztango errealitate sozio-ekonomikoari buruz. Bertan, Javier Elizalde

Baztango alkatea, Martin Garde HBko kontzejala, eta Txomin Goienetxe, Agustin Satrustegi eta Ana Mari Marin zinegotzi ohiak parte hartu zuten. Moderatzailea elizondoko Jose Antonio Meoki, Bidebieta-ko ikastetxeko irakaslea, izan zen.

Ekainaren Iean Lekarotz ikastetxeko Vidal Perez de Villareal antropologoak Baztango etxeei buruzko hitzaldia eman zuen; 2an, Elizondoko abesbatzak kontzertu bat eskeini zuen; 3an, Zurriola ibilbidean, Mutil Dantzak eta Baztango folklorea ikusteko aukera izan zuten Donostiarrak. Sukaldaritza ere bertan egon zen Pello Garmendia, Mertxe Goñi eta Joseba Iraizoz sukaldarien eskutik.

Almandozko Batzarreak, Udalak prestatutako ur-plangintza gaitzestu

IMANOL

Ia lau orduz batzarturik egon ondoren, batzartutako gehienek, Baztango Udalak Almandotzen egin nahi dituen ur-hornikuntzaren moldaketak "garestiegi" eta "ez beharrezkotzat" jo zuten.

Juradua den Begoña Sanzberro eta ur-komisioaren bertze bi lagunek, erabaki honen berri eman zioten Baztango alkateari. Javier Elizalde, Batzarreak ur-arazoetan "erabakitze ahalmenik" ez duela eta edozein modutan ere, Udalak proiektua egin egingen duela adierazi zien.

Erran behar da, proiektuan 194m³ko ur-deposito baten egitea agertzen dela, 11.466.327 pztatako kostoa erekin.

Arraoizko saihesbidea dela eta Batzarrea egin

Arraoizko Juradua den Pello Etxandik deituta, Nafarroako Gobernaren Bide Zerbitzuak prestatutako proposamena aztertu zen berriki batzarre batetan. Zerbitzu horrek dioenez, agertutako proposamena "posible den bakarra" omen da, eta jendearen iduria jakin nahi omen du orain gelditurik dagoen proiektua berriro martxan jartzeko. Aipatu beharra dago, lehenago ere Baztango Udalak, proiektuarengatik kalteturik suertatuak eta Bide Zerbitzukoak batzartu izan direla.



Elizondoko Osasun Zentroa

Elizondoko Osasun Zentroan, ez da erradiologi gehiagorik egingen

Orai dela 6 urte hasi ziren erradiologi zerbitzua eskeintzen. Geroztik, administrazioak ez du erizainek egin dituzten lanak ezagutu nahi izan, orainarte hauek beren boron-

datez egiten bait zuten lan. Eta horixe da hain zuzen ere, zerbitzua desagertzearen arrazoiak. Hemendik aintzinerat, plakak ateratzekotan Iruñera joan beharko da.

LEITZA

Igerilekuak alokatzeko enkante-lehiaketa

LEITZAKO IKASTARI

Leitzako Udal Batzarrek 24ean egindako bileran, aurten udal igerilekuak alokatzeko enkante-lehiaketa baten deialdia onartu du. Baldintzak, Interesatuentzat, Udal idazkaritzan daude. Proposamenak aurkezteko epea, ekainaren 7an bukatu zen.

Bi lanpostuen eskeintza Leitzako Udalean

Alde batetik, Administrari laguntzaile batentzako lanpostua, oposizio konkurtsoaren bidez ateratzeko; eta bestetik, Lan guztietarako langile baten lanpostua. Kasu honetan ere, oposizio konkurtsoaren bitartez beteko da.

Deialdiaren testua eta eskaeraren modelo udal idazkaritzan egon da.

Saski baloi txapelketa azken fasean sartu

Txapelketa honek gero eta arrakasta



kasta haundiagoa duela erakusten ari digu. "Zilborra de Zagret"-ek irabazi zuen lehen fasea, 5 partidu irabazi eta bat galdu ondoren.

Talde gogokoena "Zilborra de Zagret" agertzen zirtzaigun, baina erdi-finaletan porrot egin zuen, "Makabi ke te la vi"-ren aurka, 46-

47. Beste erdi-finalean berriz, "Zeltas All Star" irabazle suertatu zen "Putakumeak Rockers"-i 46-36 irabazi ondoren.

Ekainaren 2an eta 9an jokatu dira Makabi eta Zeltas-en azken bi partiduak. Suerte bion, baina kontutuan hartu beharra dago, txapeldun bakarra izanen dela.

URDAZUBI

Urdazubiko bestak akitu dira

Ekainaren 9an errebesta

ALIZIA OLAIZOLA

Maiatzaren 23an herriko bestak akitu ziren. Asteazken arratsean hasi ziren. Gazteek *Indiano Baita* jate-txean afaldu zuten eta gero, piztura haundia izan zen *Modestorekin* 6ak arte. Biharamunean goizeko hamaiketean, meza eta ondotik aperitiboa plazan eta piztura *Modestorekin*. Arratsalde eta arratsean dantzaldia. Ostiralean, goizeko hamaiketean dianak Dantxarineariko auzoan eta gero dantzaldia. Larunbat goizean pala

txapelketaren finala jokatu zen. Bigarren mailako bikoteak: Fernando Mugica —Urdazubikoa— eta Martin Arizaleta —Lekarozkoa—, Xabier Iriarte eta Rafael Vidaurren aurka —Biak Urdazubikoak—, azken hauek Txapeldunak gelditu ziren, 40-50.

Lehendabiziko mailako bikoteak: Altxu eta Berro —Mugairekoak—, Migel Letona —Elizondokoa— eta Tomas Ariztia —Urdazubikoa—ren aurka, 49-50 Mugairekoak Txapel-

dun gelditu zirelarik. Arratsean zikiro jatea eta ondotik dantzaldia, *Arkaitz* Taldearekin. Igande arratsaldean aizkolariak, Goizuetako dantzariak, ea. beraien saioa eskeini ondoren, bestak *Pobre de mirekin* akitu ziren.

Aipatu, halere bestak ez direla hemen akitzen eta ekainaren 9an *errebesta* ospatuko da, zikiro jatea eta dantzaldiarekin. Biharamunean ekainaren 10an arratsaldean *Moto Crossa* izanen da.

EZKONTZAK

Kandido Gastearena Elizalde eta **M. Jose Salgado Ginaldo**, Ezkurakoa eta Elizondokoa, ekainaren 2an.

Iñaki Mitxelena Cuevas eta **Miren Karmele Tolosa Erro**, Irundarrak, ekainaren 3an.

Fco. Javier Anzizu Elizondo eta **M. Nieves Oskoz Sarratea**, Lizasokoa eta Amandozkoa, maiatzaren 12an.

Jose Ignacio Pikabea Zoziaia eta **M. Luz Larralde Larregi**, Lesaka eta Arizkungoa, maiatzaren 19an.

Fernando Etxegarai Etxebeste eta **Ana Jose Etxegarai Goienetxe**, Berakoa eta Lesakakoa, maiatzaren 19an.

Andres Ostolaiz Eskudero eta **M. Cruz Txoperena Alzugarrai**, Oiartzun eta Lesakakoa, maiatzaren 25ean.

Jose Ignacio Arriola Alzugarrai eta **M. Begoña Alava Zaporta**, Donostia eta Lesakakoa, maiatzaren 26an.

JAIO TZAK

Aratz Erregerena Altxu, Iturrengoa, maiatzaren 18an

Jon Arre xea Unanua, Gartzaingoa, maiatzaren 20an.

Maite Iturria Gaztelumendi, Lesakakoa, maiatzaren 18an.

Jokin Taberna Etxeberria, Lesakakoa, maiatzaren 14ean.

HERIOTZAK

Joxe Estebekorena Etxepare, Urdazubin, maiatzaren 24ean, 91 urte.

M. Isabel Berrueta Irisarri, Etxalarkoa, maiatzaren 22an, 87 urte.

Juana Fca. Santesteban Larrondo, Amairren, maiatzaren 16an, 88 urte.

Angela Concambre Gartxitorena, Elizondon, maiatzaren 19an, 81 urte.


Santiago Barragan Ruiz de Larrinaga, Elizondon, maiatzaren 21ean, 79 urte.

Dionisio Lastiri Manterola, Sunbillan, maiatzaren 23an, 63 urte.

Irene Igoa Igoa, Berakoa, maiatzaren 31an, 84 urte.

Joaquina Mitxelena Irigoien, Beran, ekainaren 1ean, 94 urte.

Xorroxin Irratia: Baztandik Malerrekaraino hedatzen den boza



Duela 10 urte Erratzuko eskoletatik hasi ziren emititzen. Lehendabiziko hiru urtetan izandako gora beherak gainditu ondoren eta Baztan osoan seinalea entzutea lortu zutenean, egoitza orain duten lokalean, Elizondon, finkatu zuten. Telefonoa jarri eta egun osoko programazioak egiteari ekin zioten. Gaur egun, 50en bat lagunek parte hartzen dute euskalduna eta herrikoia den irrati honetan.

Legalizazioa lortzea, aintzina-pausu izugarria litzateke

Eta momentu honetan, legalizazioa lortu beharrak ekarri dizkien arazoak izanen litzateke beurentzat buru-haustetik haundiena. Gaur artio, Euskal Herriko bertze hainbat irrati bezala, lege aldetik zegoen hutsune horren barnean ibili da Xorroxin Irratia.

Baina orain, Gobernuak frekuentziak kontrolatzeko atera berri duen LOT deitzen den legea dela eta, legalizaziorako bidea hartzea deliberatu dute. Programazioa 4 ordutara mugatu behar izan dute eta beuren ustez lizentzia lortzea behar-beharrezkoa

izanen litzateke aintzina-pausu bat ematekotan.

Hasieran finkatu zituen helburu gehienak lortu ditu 10 urte hauetan

Baztan eta bere ingurua nahiko isolatua egon da betidanik, bai bere kokagune geografikoarengatik eta baita bere ezugarri kulturalengatik. Duela denbora guti arte, FMko irrati guti entzuten ziren Baztan aldean. Prentsa leitzeko ohitura ere, makal samarra da. Hori zela eta —diote Xorroxin Irratikoek— beharrezkoa

ikusituzen irrati bat bertan antolatzea.

Zein helbururekin?

—Herritar guziendako idekia egotea; hau da, herritar guzien eritzien espresibidean bilakatzea.

—Bertako hizkuntza eta kultur nortasuna indartzea. Hortaz, hizkuntz bakarria bezala euskara erabiltzea erabaki zen eta batez ere gure hizkuntzak bertze espresibide gehienetan duen presentzia eskasarengatik.

Lehenengo helburua bete dutela uste dute; alde batetik parte hartze haundia bait dago, bai irratsaioak egiteko orduan zein edozein eginkizunetan laguntzerakoan eta bertalde, entzule kopurua haundia dela uste dute, telefonoaren bitartez egiten dituzten deiengatik eta herri ezberdinetan sumatu dutenarengatik.

Bigarren helburua lortu duten ala ez zenbatzea zailagoa egiten bazaie ere, irratiak kultur mailan ekintza mordoska bultzatu dituela erran baharra dago, eta beraien ustez, paper positiboa jokatu du.

Bi helburu nagusi hauetatik aparte bertze zenbait ere aipa genitzake. Adibidez, bertze irratiakin eduki dituzten harremanak, batez ere iparraldeko Irulegi Irratia, Xiberuko Botza eta Gure Irratiarekin. Elkarrekin, irratsaioak egin eta informazioa eta teknikak trukatu ere egin dituzte.

Teknikari dagokionez erran beharra dago, aurrerakuntza polittik egin dituztela. Orain Baztan eta Bertizaranan arrunt ongi entzuten da eta Malerrekaraino ailegatzen da zerbait.

Eta orain legalizazioaren apostua

Lehen erran dugun bezala, legalizatzeko prozesu honek pausu berri



Berrogeitamarren bat lagunek parte hartzen dute Xorroxin Irratian


batzuk ematera bultzatzen du. Alde batetik legeak berak horretara behartzen duelako eta bertzaldetik, bertze helburu berri batzuk finkatu nahi dituztelako.

Irratiaren helburu nagusiak mantenduz, irratsaioen kalitatea hobetzea eta ekonomikoki sendotzea izanen lirateke etorkizunean lortu beharrekoak.

Lehendabiziko helburua lortzeko, irratsaioak egiten dituztenen prestakuntza hobetzea derrigorrezkoa izanen litzatekeela diote. Bigarrenari buruz, aipatzekoa da orai artio ez dutela

laguntza haundirik izan instituzioetatik. Eskuratu duten dirurik gehiena zozketatik eta herrietan jarritako ostatuetatik izan da. Beraz, funtzionamenduan finkotasuna izateko beharrezkoa izanen zaie instituzioen laguntza. Hortaz, Nafarroako Gobernuari aurkeztu dioten aurre-proiektuan, urte osorako, 10 milioitako aurrekontua planteatzen dute eta beuren ustez, justu-justu ibiliko dira legalizazioak ekarriko dizkien gastu guztiak gairiditzeko; hau da, emisore berria, antenaren antolaketak eta baita pertsonalaren gastuak —3 lagun 8 orduz edo 6, 3 orduz—.

PELLO ASTIZ



Baztan-Malerreka-Bortzirietako instituttoa?

Maria Jesus Perurenarekin solasean

Arazoz inguraturik hazia, heldu den kurtsoan hirugarren aldikoz jaioko den batxilergoko instituttoa giro ezin bereziago batetan abiatuko da. Lekarotzen kokatu behar omen dute... Hornidura ezin hobeagoa izanen omen du... BBBkoa mantentzen omen da... baina, Bortzirietako guraso batzuk beuren seme-alabek Hondarribikoan matrikulatzen ari omen dira...

“Omen”-ez jositako jarrera argitu asmoz, bere eritziak ezagutu nahiean eta etorkizuna nolakoa ikusten duen jakiteko, Maria Jesus Perurenarengana jo dugu: Institutoko gurasoen elkartekide, Doneztebeko maistra, Lekarotzen jaio zen emakume hau urteak daramatza aferan. Maiatzaren 9a da gaur.



Institutoa Lekarotzen ideki behar dutela entzun da irakurri dugu. Zer dakizu horretaz? Galdetzen diogu.

Egunkaritan jasotako berriak soilik dakizkit nik —erantzuten du etsipenezko irriparrarekin—, gainerako guztiak usteak dira.

Dagoeneko harridura txanda dugu. Interesaturik dauden gurasoek deus garbirik ez jakitea nola

daiteke?

Baina zuek kokapena dela eta bururatu duzue, batxilergoa mantentzearen alde eta REM delako hori ezar ez dezaten... Datu zehatzak erabiliko zenituzten, bada!

Ez, ez! Guraso Elkartearen Institutoa behingoz lortzeko bai, baina kokapena bera, ez da sekulan eztabaidatu, aukeratu are gutxiago, ez zela gure eginbeharra uste bait genuen. Elkarrekin zatitzeko, puskatzeko,

motibua izanen zela iduritzen zitzaigun eta bakoitzak bere eritziarekin segitzen du —zuzentzen du agudo—. REMekoa bai —segitzen du— erreformaren beharra ukatzen ez dugularik. Gu BBB mantentzearen alde atera baginen zeragatik izan zen: ez erreformaren aurka gaudelako —denetatik egonen baita—, institutorearen baldintzekin, Oronokoan, sasierreforma ezartzearen kontra baizik. Aurretik berriro irakaslego osoa behar den lekuan, non da

erreforma gunea? Nortzuk dira oraindik hautatzeko dauden irakasleen artean erreformaren alde lan egin nahi dutenak? Egoera horretan erreforma izeneko zerbait paratzea ez zaigu serioa iduritzen.

Dena den, hori behintzat lortu duzue: BBB, eta ez REM. Bestalde, erraten denez gero, Lekarotzen izugarritzko instalazio onak lortzen dira, nahiz eta oztopo batzuk agertarazi ere: Distantzi haundiagoa zenbait kasu-

tan, errepide edo karreteraren arriskuak, desorekak toki batetik bertzetara, garraio ordaintze ezberdinak... Guraso Elkarrekin nola ikusten du guzti hau?

Bakoitzak bere modura, pentsatzen dut —dio—. Azken finean guzia antolatzeko dago. Eraikuntzak eta zerbitzuak hobeagoak izanik ere, inongo ziurtasun ofizialik gabe gabiltza, garaioak, jangela eta sukaldeak martxan jarri behar direla...

Ahal dugun modurik hoberenean egiten saiatuko gara, batere erraza ez dela jakin arren.

Bortzirietako hainbat guraso seme-alaben aurreinskripzioa Hondarribian egiten ari direla entzun dugu, Zer dakizu horretaz?

Nik ere murmurioak entzun ditut. Betidanik izan dute Bortzirietakoak posi-

bilitate hori eta orain, Gipuzkoako institutoak hain beterik ez daudenean, lehen zeuden zailtasunak erraztasun bihurtu dira. Hango institutoak gainera, ez dira hemengoaren modura zurrumbiloan egon. Konfidantza gehiago eskeintzen dute, alegia!

Baina zonalderako, euskal lerrorako bereziki, ondorio txarra ekar lezake jarrera horren finkapenak, ezta?

Bai, baliteke, baina eskubide pertsonalaren eremuan sartzen gara eta hor ez dago deus erraterik; kontsiliuak ematea ez bada. Azken finean, guzti hau despropósito ugariren ondorioztat har dezakegu.

Despropósitoen laburpena egin dezakezu?

Laburbiltzea hagitz zaila da! Institutoa irekitzea, errate baterako, Baztango Udalaren ideia on baten ondorioa izan zen, gero



Dirudienez, zonaldearen ertz batetan kokatu nahi dute institutoa

segizio txar batez erdi hondatu dena. Ondarreko fase honetan, berriz, gauzak gero eta nahasiagoak etorri dira. Administrazioak, hasieran, Doneztekoko lurraldeak eskatu zituen, teknikoen ikerketen ondorioz hura baitzen kokapen onena. Lortu ondoren beste tirabirak sortu ziren, politikoak prezeski, eta PSOE-UPNren arteko akordioa Nafarroa mailan. Zentzu onaren erabilera ahulduz joan da, eskubide "historikoak" nagusituz, udal borroka bulkatuz.... Egun, dirudienez, zonaldearen ertz batetan kokatu nahi dute funtzio zentrala duen zerbitzua. Hagitz arrazionala!

Duela hilabete batzu Malerreko 12-16 urtetako neska-mutilak Oronotzera eramane zirela erran zuen Ripak. Orain Lekarotzera eramane nahi izanen dituztela deritzozu?

Auskalo! Oraindik ez

zonifikazioa, ez plangintza ez bait dugu ezagutzen!

emakume ernea denez gero, Maria Jesus entzun bertzerik ez zuen egin nere susmo txarraren erretolika. Diputazioko teknikoen eritziak baztertu baldin badira, nioen nik, UPN-PSOEren arteko itunak sorgin erratzaren pape- ra betetzea tokatu zaiolako dela, alegia. *Lahar guztien gainetik* eramane gaitu. Laharra zonaldeko biztanlearen abertzale-euskaltzale- letasuna dugu, Bidasoaren kin batera handitzen den uholdea. *Hodei guztien azpitik*, ere, hodeiak irakas- kuntzaren arrazionalitateak dira, berriro azpitik pasa- ko, berriro azpitik, azpitik...



Oronotzeko institutoa

JUAINAS



EUSKALDUNA

JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92

BERA

IPINGI

**ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA**

Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

Zizka ostatua

Altzate - BERA

GRUPO  **ZURICH**

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63



ARROPA ETA OPARI DENDA

Mercaderes 9

DONEZTEBE

ARROPA DENDA



**CERVANTES
HELVETIA SEGUROS**



Era guzietako aseguroak

Eska itzazu aurrekontuak

Juana M. Urrutia



BAZTAN

ALTZARIAK

zurgindegia

- ✓ Sukalde, logela, jangela eta egongelarako
mobleak
- ✓ Koltxoia

121 errepide nazionala, 54. km

IRURITA - BAZTAN

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guerendiain


SARA - LAPURDI

OLARI

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA



**TXOKO
ERRETEGIA**

**Bazkari, afari eta
gosariak ematen
dira**


ITUREN

Tfnoa.: 59 44 91

Bortzirietako Kirol Eskolak ikasturtea bukatu

eta Bortzirietan bezala Baztan-Malerrekan eta Leitzaranean ere eratuak daude "Oinarritzko kirol eskola" deitzen direnak. Kirol eskola hauetan 7 urtetatik 14 urte bitarteko neska-mutilek parte har dezakete, eta kirol espezialitate aunitzen oinarriak erakusten dira — futbola, eskubaloia, saskibaloia, pilota, atletismoa, txirrindularitza ea., —, horrela edozein haurrek aukera dauka kirol espezialitate guztietan parte hartzeko eta 15 urte betetzean zonalde bakoitzetan dauden klub edo kirol taldeetan sar daitezke ordu-rako zehaztua izanen baitu zer nolako kirol mota egin nahi duen federatu mailan.

Kirol eskola hauen helburua "haurrak kirol hezi-



keta orokor bat izatea" izanen litzateke, hau da;

kirola egitea ahalik eta haur gehienek, kirol horretan

ona edo txarra den kontutan eduki gabe, diskriminaziorik gabe. Baita kirol batzuren teknikak ea. monitore batzuren bitartez ikastea.

Joan den azarotik maiatzarte iraun dute horrela, astelehenetik ortziralerarte aritu dira hainbat eta hainbat monitore bere lanetan Bortzirietako haur guztiei —nahi izan dutenei bederen— kirola egiteko aukera ederra ematen. Aipatzekoa da, espezialitate bakoitzean ikasten aritu den haur kopurua: Futbola 75, Pilota eskuz 70, Joko-garbi txistera 62, Eskubaloia 130, Saskibaloia 80, Txirrindularitza 45, Atletismoa 40, Gimnasia Ritmikoa 65, Karatea 55.

MATTARI

Malerreka Pilota Eskola


atseden txiki bat hartzeko astirik ere ez du Momentu honetan Malerreka Pilota Eskolak.

• Astelehen eta ortzegunetan segitzen du pilota entrenamenduekin eta Malerreka mutil guztientzat irekia dago.

• Josetxo Ezkurra I. Memoriala" aurrera doa poliki poliki. Oraintxe

bertan Nafarroan 8 txapelketa ezberdin ditugu.

• Joan den maiatzaren 27an hasi zen "Herriarteko Txapelketa" eta Malerreka lehen aldiz hartuko du parte. Maiatzaren 27an Lesaka-Billaba, ekainaren 3an Malerreka-Lesaka, ekainaren 10an Billaba-Mallerreka, ekainaren 17an Billaba-Lesaka, ekainaren 24an Lesaka-Mallerreka, uztailaren 1an Malerreka-



Doneztebeko Bear Zana Frontoa

Billaba.

Txapeldunak aurrera segituko du eta B taldeko Txapeldunaren auka joka-

tuko du. B taldean, Bera, Leitza eta Agoitz daude.

MIKEL IBARROLA

IRUBIDE

ostatua
erretegia
LESAKA — 63 71 27

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 59 40 14
BEINTZA - LABAIEN

Errekalde

ostatua
BERA



Lore eta landareak
Erain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA



Oinetakoak
San Miguel 2, DONEZTEBE

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA

Beheko Plaza 8, LESAKA

ATERPE jatetxea

Mendi ibilaldietarako
Mountain bike bizikletak
alokatzen ditugu
tfnoa: 63 41 79

ARANTZA



OSASUN-DENDA
BELARRAK-DIETETIKA
EDERGAI NATURALAK

Hemen zuk behar zenuena
* Hurbil eta egoki *

Uda hemen dago; presta zaitez.
Soberan dituzun kilo horiek kendu.
Zure larrua garbitu eta leundu.
Edertasun guztiaz ager zaitez.
Nerbio eta indarrak sendotu.
Benetan disfrutat. Osasuna ez ahuldu.
Arretxea, 32 Tfnoa: 637466 LESAKA

MEKANOTERAPIA ZENTROA LUR APAL

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA
Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESAKA

ÁTXASPI OSTATUA Lesaka

PIZZIO OSTATUA

Tfnoa.: 63 07 88
Altzate - BERA



KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

IZANA ILEAPAINDEGIA

Bidasoa 81, Behea
Tfnoa.: 63 10 55 - BERA

ARKUPE GOXOTEGIA

Tfnoa: 45 20 21
IRURITA

y oan

Zapatadenda
Beraketa, 13 Tfnoa: (943) 62 15 74
IRUN

Es kisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

Publizitaterik onena preziorik ttikienean

Zure iragarkiak Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi,
Sara eta bertze hainbertze herritara zabaldu nahi badituzu, deitu 63 11 88 Telefonora

Eskolarteko aktibitateak

Eeeup! aldizkaria Igantzi, Arantza eta Etxalarren

Arantza, Igantzi eta Etxalarko eskolak elkarrekin egiten ditugun ekintzen arteko bat, eeeup! aldizkaria dugu. Hurrengo lerrotan, ekin-tza honen zergatia eta egiteko modua kontatuko dizuet.

Aldizkari baten ideia ez da aur-tengoa. Duela bi ikasturte, Arantza-ko eskolak "Kaixo!" izeneko aldiz-karia sortu zuen, bainan, hain ikas-tetxe txikiarentzat lan gehiegi zenez, lehenengo alearekin gelditu ginen. Aurten, hiru herriren artean komuni-katzeko beharra ikusirik eta irakasle nahiz ikasleen arteko lotura sakon-tzeko asmoz, eeeup! sortu dugu.

Aldizkariarekin lor daitezken hel-buru pedagogikoak aunitz dira. Alde batetik, umea, momentu horretan he-rrian edo ingurunean gertatzen dena-rekin kazetari bihurtzen da. Bestal-de, idazlanak, ipuinak, bertsoak, den-borapasak, e.a. hizkuntza lantzeko ariketa ezin hobeak dira. Baita aldiz-



karia egiteko pausoak ezagutzea ere —berri bilketa, aukeraketa, konpo-saketa— oso aberasgarritzat jotzen dugu. Azkenik, euskara eta irakurke-tarekiko zaletasuna haurrengan sor-tzea lortu nahi genuke, gerora begira gutxienez *ttipi-ttapa*ren irakurle izan daitezen.

Egiteko prozesua oso erraza da.

Hiruhilabetetik behin ale bat argita-ratzen da. Irakasle arduradun bat dago eta hiru eskoletako umeek beren lanak bidaltzen dizkiote irakasle horri epe baten barruan. Gero, konposaketa lana dator, hau eskola bakoitzeko helduen taldeak egiten du, lehen alea arantzakoek, bigarrena igantzikoek eta orain ekainean, hirugarrena, e-txalarkoek egiten dute. Inprimaketa liburudenda batetan egiten dugu, ale kopurua nahiko haundia bait da, 150. Gero, eskoletan umeak dituzten familia guztietara bidaltzen da.

Eta denaren gainetik, hagitz ongi pasatzen dugu. Dakizkigun txisteak herri-herri zabaltzen ditugu, sukal-daritzako errezetak baita, eta elka-rren artean, batzuk besteei hutsak bi-latuz nahiko irri ere egiten dugu. Bi-denabar olerkari izkuturen baten bi-hotza arintzeko balio badu, oraindik hobeki.

GABI GOIA

Irakasle Koordinatzailea

Lesakako ikastolak Piper Gorri aldizkaria argitaratzen du

Eta aldizkari pottolo horretatik jaso ditugu hemengo bertso hauek. Dena den, bertsoez aparte marraz-kiak, ipuinak, inkestak, denborapa-sak, maila guztietako ikasleak presta-turikoak.

Itxaropenaren helburua

Karmele Rekondo - Txoko Txiki Bertso Sariketako I. saria

I
Ikastola berria
zen gure helburua
Euskaldunak gara ta
badugu modua.
Ez zen erraza izan
lortzea dirua
itxaropena ez gendun
erabat galdua.

II
Teilatua botata
itxura aldatuta
kristalak apurturik
sarrera itxita
gelak desagertuak
pareta xehetuta
pena ematen dizu
hura ikusita.

III
Bertso hau nahi nizuke
nik eskeini zuri
Alhondiga zaharra
bestelatan nori?
zuhaitza izan zara
ta gu zure txori
aldegin beharra ta
eusten malkoari.

ETXEBIZITZAK

-**Etxe edo baserria** erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen. Eskura ordaintzen dut. Diskrezio osoa. Jose Antonio Elizondo Tfnoa: (948) 59 40 54

-**Baztango Olabidean**, baserri bat dago salgai; lasaitasunez haundiko parajea. Belagi eta bertze hainbertze herri-lur erabiltzeko eskubidea. 58 90 11 tfnoa.

-**Zubiet**a. Borda bat alokatzen dut deus kobratu gabe. Baldintza bakarra 3 urtez zaintzea izanen litzateke. Ezkalo jauna. Tfnoa: 594054

LANA

-**Lehenbiziko eta zortzigarren** arteko mailako hurrei klaseak emateko prest nengoke, uda aldean Iturenen. Nahi dutenek dei dezatela 59 44 39 telefonora. Ituren.

-**Frantzes klaseak** Silvia Mazi-zior-ekin. Tfnoa: 630108

SALEROSKETAK

-**Erosten dut**: Baserriak, bordak, errota, argi indarreko zentralak (nuklearrik ez!), sagardoa egiteko tolaiek, gurdi zaharrak, teilak, tarmak eta solibo zaharrak. Informazioa: Ezkalo Jauna. Tfnoa: 594054

-**Hiru bizikleta** salgai, 2 karrerakoak, ttikiak, 5.000 pezetatan bakoitza. Bertzea kroseta bat, amortiguadore eta plato ttikiarekin 10.000 pezetatan. Deitu Lesakako 63 77 86 telefonora.

-**Ordenadore** polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. Deitu 631188 telefonora.

-**Sukalde eta frigorifiko** industrialak saldu edo etxerakoez aldatu nahi ditugu. Tfnoa: 637 854

-**Idazmakina elektronikoa** saltzen da. CANON markakoa. Interesatzen bazaizu deitu 631188 telefonora.

-**Euskal ardi-zakurkumeak** erosten ditut. Eskura ordaintzen dut. Ezkalo jauna Tfnoa: 59 40 54

-**Karate egiteko bi jantzi** berri saltzen ditut. 2 zenbakia duen tailakoa (7-8 urtekoentzat) eta 3 zbk.koa bertzea (10-11 urtekoentzat). Biak 6.000 pzt. Tfnoa: 63 00 02

-**2CV Charleston** bat, egoera ezin hobean dagoena, saldu nahi dut 250.000 pztatan. Interesaturik egoenez gero dei ezazue 63 11 88 tfnora. Nahi izanez gero konplementoak ere baditu.

-**Akordeoi bat daukat** saltzeko, 96 bajoko Parrot markakoa. Urte batez erabilia eta hagitz ongi dagoena. Tfnoa: 515046 Saldias.

-**Ardi zakur eskoziarra** edo **Coly** bat saldu nahi dut. Informazioa: Ezkalo Jauna. Tfnoa: 594054

-**Brakos-Frances ehiza txakurkumeak** saldu nahi ditut. (Euskaraz hitz egitea baino ez zaie falta) Informazioa: Ezkalo Jauna. Tfnoa: 594054

DENETARIK

-**Tafallako bikote batek** 8 hila-beteko haur batekin, pisu bat alokatuko luke uztailaren 15etik 31 arte. Deitu tfno honetara: 70 16 53

-**Trikitixa eta panderoa** jotzen ikasi nahi al duzu? Guk irakatsiko dizugu Sunbillan. Josune eta Ainhoa. Deitu aste tartean (943) 625048 telefonora.


-**Ja Ja! umeendako Diskaren egilea** den Xabi Muguruza kontratatu nahi baduzue, deitu tfno honetara: (943) 63 09 50

HARREMANAK

—**Karmele edo Edurne**, nere bihotzeko goxokiak zarete. Hurrengo igandean espetuko zaituztet Ziobi Tabernan. Gaba on bat pasatzeko "Aitor".

-**"Faiaio"** Lesakako mutil honeri ezkontz dei bat egin nahi nioke; nere izena "Goxone", urteak 35, oso beroa.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU. Testua: ttipi-ttapa Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188	ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!! IZEN-DEITURAK HELBIDEA HERRIA ttipi-ttapa Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188
--	--



Nork, bat	▼		▼		Atzo gaucan	▼		Suari dario
Ekialdeko tenploak			Azala					
►		▼			▼		▼	
Ordu	►							
Ipar. Berandu								
►								Fruitu mota
Ume	►						Potasioa	► ▼
Bat							Musu	
►		▼	4 + 3	►			▼	
			Zinka					
999	►		Esku-... , txaloak	►				
Odol zurru-patzaile			Sasoiak					
►		▼			Bokal sapaikariak	►		Zero
					Animalia ornogabe			
Zango atal	►			Euskarria	► ▼		▼	
Hazama				Bokala				
►			▼			Erbioa	►	Baita ere
						Bigarren pertsona		
Erronkar. Dira	►			Odolean	►	▼	Musika nota	► ▼
Musika nota				Baneuka			Hiru ken bi	
►		Rubidioa	►	▼	Haran	►	▼	
		Emakume guraso			Urteko sasoiak			
	Lege	► ▼		▼		Atari	►	
	Kontsonante bikoitza					.. egin, goitika ari		
►	▼				▼			Röntgen
Aintzirak	►						Likido edangarri	► ▼


 Xorroxin irrtiaren eremuko herriak

ENBIDO

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

Erakusketa

EUSKARAREN EGOERA BORTZIRIETAN

Estudio Soziolinguistikoaren laburpena

BERA

Kultur Egunen barnean, ekainaren 3tik 9ra bitartean,
Gure Txokoa Elkartean

IGANTZI

Ekainaren 10tik 16ra bitartean,
Biltoki Elkartean

ARANTZA

Ekainaren, 17tik 23a bitartean,
Herriko Etxeko Arkupean

ETXALAR

Kultur Egunen barnean, ekainaren 24tik 30era
bitartean, Herriko Plazan

LESAKA

Kultur Astearen barnean, uztailaren 1etik 6ra
bitartean, Herriko Etxean